



-1.000.000 urte



Lehen gizon-emakumeak Afrikan, Asian eta Europan bizi ziren. Harri landuaz lanabesak egiten zituzten, eta ehizaz eta arrantzaz bizi ziren.

-30.000 urte

Gizakiak bere lanabesak hobetzen ikasi zuten. Harria egokiago lantzen zuten eta ehizatutako animalien hezurak erabiltzen zituzten.



-4.000 urte

Lehenengo gizarte antolatua azaldu ziren. Egiptoko zibilizazioa Niloren haranean sortu zen.

HISTORIAURREA

HISTORIAURREA



-800.000 urte

Sua aurkitu zuten eta pixkanaka-pixkanaka erabiltzen ikasi.


-7.000 urte

Lurra lantzen eta animaliak hezitzen ikasi zuten. Nekazariak bihurtu ziren.



-3.500 urte


Idazkeraren erabilerak, Historiaren abiapuntu eta hasiera markatu zuten.



Nekazarien lana

Garai hartako gizon-emakume gehienak nekazariak ziren. Jauntxoek lurrak lantzen zituzten eta bizimodu gogorra zuten. Batzuek, *jopuek*, ez zeukaten lur horiek uzteko baimenik.

Etxola kaskarretan eta oso egoera penagarrian bizi ziren.




XII. mendeko euskaldunen lanbide desberdinak, Santiago bideko errromesen arabera.

Erdi Aroko euskaldunak bi eremu edo zonalde desberdinetan bana daitezke: alde batetik itsasertz eta barruko mendi eta haranetakoak; eta bestetik lautadetan eta Ebro ibaiaren bi aldeetan kokatuak. Erdi Aro osoan zehar, oso bizimodu desberdina izan zuten zonalde batekoek eta bestekeok.

ERDI AROA

Gaztelua

Jauntxoek bizilekua zen, etsaien erasoetatik babesteko eraikia. Inguruko biztanleak bertan gordetzen ziren arriskua zegoenean.



Musulmanen aurkako gudaak

Erdi Aroan guda ugari izan ziren kristauen eta musulmanen artean. Gaztela, Aragoa eta Nafarroako erregeak musulmanen aurka ibili ziren. Nafarroako Antso VII.a *Azkarra*k, 1212. urtean, garaipen sonatua lortu zuen *Navas de Tolosa* izeneko parajeetan. Han, musulmanen kanpamendua inguratzen zuten kateak hautsi eta barrura sartu zen bere gudariek. Geroztik, katea horiek apaintzen dute Nafarroako armaria.

Erdi Aroko azkenaldera Bilboko portua merkataritzako portu garrantzitsu bilakatu zen. Euskal Herriko burdina eta Gaztelako artilea bidaltzen zuten baitipal.




Normandoei ikasitako teknikei esker, euskaldunak arrantzan eta ontzigitzan irebituziren, Europa mailan ere ospe handia lortuz.

-3000

-500 urte


Greziako zibilizazioa oso aurreratuia izan zen bere garairak
Atenas hiriairean gain-gainean, Palas Atenea jaunkosaren
omenez eraikitako Paternon izeneko tenplua zegoen.



ANTZIN ARCOA



-100 urte

Legioei esker,
Erromak inperio
zabal baten
aginteari eutsi ahal
izan zion bost
mende inguru.



Beñat Etxepare

Garazi inguruan, ustez Sarrasketan, jaioa omen zen. Etxepare izan zen euskaraz idatzitako lehen liburuarren egilea: *Linguae Vasconum Primitiae*, 1545. urtean inprimatua.



Miguel Servet (1511-1553)

Tuteran jaioa, zientzilari nafarrak medikuntza arloan aurkikuntza bikaina egin zuen bere garaian: odol-zirkulazioarena. Europa guztian zehar ibili zen eta baita garaiko erlijio borroketan parte hartu ere. Italiara ihesi zihola, Genevan atxilotu, epaitu eta hil egin zuten sutan erreta.

Erregeak, euskaldunen jaun

XVI. mendean, Gaztela eta Frantziako erregeak euskaldunen errege bihurtu ziren: Gaztelakoa, hegoaldeko *euskaldunen* nagusi; eta Frantziakoa, iparraldeko *euskaldunen* jauntxo.

Erregearen menpekoak izan arren, berezko nortasuna zutelako euskaldunek eskubide historiko bereziak zituzten eta erregeek Euskal Herriko lege zaharrak (foruak) zin egiten zituzten.

ARO MODERNOA

Rodrigo Santxez de Mercado Zuazola

(1465-1548)
1465. urte inguruan jaiotako oñatiar hau izan zen Oñatiko Unibertsitatea, Euskal Herriko lehenengoa, martxan jartzeko ahaleginak egin zituen. 1540. urtean sortu zuen Unibertsitatea. Bere gogoa erabat bete gabe hil bazen ere, handik hiru urtera martxan jarri zuten berak utzitako diruari esker. Avilako apezpiku izan zen eta zeuzkan ondasun guztiak euskaldunentzako Unibertsitate hau eraikitzeke utzi zituen.

Errepublikak martxan


Iraultzaren ondoren, erregetza baztertu eta errepublika jarri zen. Frantzia osoko hiribarrak eskubidez eta betebeharez berdinak zirela eta aurrerantzean Frantziako hiribarrak aginduko zutela, aldarrikatu zuten. Horrela hasi zen martxan I. Errepublika.

Ekonomia, indartsu

Itsasoko merkataritzak eraginda, euskal kostalde osoak urte oparoak bizi izan zituen ekonomia arloan. Euskaldunek merkataritzaren inguruan antolatuta eta indartuta zuten industria: ontzigtza, burdingintza, armagintza, arrantza... Bizkaiko burdinak eta beste zenbait produktuk (armak, arraina...) ospe handia zuten Europan eta Amerikan. Euskaldunek merkataritza etxeak zituzten beste zenbait herrialdetako kai eta merkatuetan.

Frantziako iraultza

XVIII. mendean, Frantziako erregea oso bo-teretsua zen. Jauntxoek ere gainerako herritarrek baino eskubide gehiago zituzten. Nekazariak, langileak eta hirietako jendea miseria gorrian bizi zen bitartean, erregeak eta bere gortek sekulako festak eta jaiak antolatzen zituen, dirutza handiak gastatuz. 1789ko Uztailaren 14an Parisko hiribarrak Bastillako gartzelari eraso zitoten. Geroztik, Frantzia osora hedatu zen iraultza.



Iparraldea forurik gabe

Frantziako Iraultzak, erregea eta erregetza kendu zuen bezala, jauntxoek eta handikien eskubide bereziak ere desegin zituen. *Denak berdin* lemarri jarraituz, euskal lege zaharrak, foruak, gainontzeko eskubide bereziak bezalaxe, kendu egin behar zirela erabaki zuten. Aurrerantzean, euskara eta euskal kultura Errepublikaren kontrakotzat hartuak izango ziren. Iparraldeko euskaldunak, Biarnoko herritarrekin batera, Pirineo Atlantiarrek departamentuan sartu zituzten. Geroztik, Iparraldean ez da euskal legerik, eta Frantziak ez du onartu euskaldunentzat lurralde edo departamentu propiorik.